



ATAUNGO UDALA

Bandoa *ATAUN*

ONARTU DUGU 2022KO AURREKONTUA

Abenduaren 21eko Osoko Bilkuran aho batez onartu genuen **2022ko aurrekontua, guztira 2.143.491 eurokoa**. Horietatik 441.000 euro inbertsio errealetarako izango dira, eta hor sartuta dago, besteak beste, argiteriaren 4. fasea eta plaka fotovoltaikoak jartzen hastea. 2021ean kale-argiteriaren 3. fasea gauzatu dugu, udal-eraikinen energia eraginkortasuna aztertzeko auditoretzak egin dira, eta 2022an kale-argiteriaren azken fasea burutzeko asmoa dugu, eta udal-eraikinetarako argindarra sortzen hastekoa ere bai. Soberan geratzen den argindarra herritarrei eskaintzea da asmoa, eta, horretarako, energia-komunitateak eratu beharko lirатеke. Horrez gain, Aian interpretazio-zentro txiki bat martxan jartzeko asmoa dugu, San Gregorioko frontoia pintatu eta bernizatu egingo da, eta Zubikoetako industrialdean karabana eta autokarabanentzako lekua egokituko dugu. Era berean, botika etxearen erosketa gauzatzea eta proiektua erabakitzen eta idazten hastea da asmoa, eta udal-artxiboa txukuntzen eta eguneratzen beste urrats bat egitea. Gizarte zerbitzuetan % 30eko igoera izan zuen 2021eko aurrekontuak, batez ere familien larrialdiko laguntzetara eta esku-hartzeetara bideratuta, eta kopuru horri eutsiko diogu 2022an ere.

Udalak kudeatzen dituen zergetan eta tasetan 1,5eko igoera izango da, zaborraren tasan izan ezik. Tasa hori iaz igo genuen, eta aurtien bere horretan uztea erabaki dugu.

Bestalde, ibilgailu historikoen hobariari dagokionez, bertan behera uztea erabaki dugu. Izan ere, aurreikusten genuen baino ibilgailu gehiago dago, eta ibilgailu horietako askori ematen zaien erabilera ez dugu uste saritzekoa modukoa denik. Hortaz, 2022tik aurrera dagokien zerga ordaindu beharko dute ibilgailu horiek guztiek.

Informazio gehiago:

komunikazioa@ataun.eus  616758758

 @Ataungo_Udala  Ataungo_Udala

SKATE IKASTAROA ETA ZIRKO MUSIKALA

Abenduaren 28an skate ikastaroa izango da Joxemiel Barandiaran ikastetxearen kanpoaldean. Urtarrilaren 9an, berriz, zirko musikala izango dugu Herri Antzokian, Landarbaso abesbatzak antolatutako ikuskizun interaktiboa. Arratsaldeko 17:00etan izango da emanaldia, eta doan izango da.

URTE BERRI ON!


Badoa 2021a ere. Mundu-mailako pandemiak baldintzatu zituen iaz gure asmoak, nahiak eta ametsak, aurten ere bai neurri handi batean, baina bidea eginez ikasi dugu egoera berrira egokitzen.

Aurrerapausoak egin badira ere, Covid19a eta haren ondorioak luzerako izango ditugula dirudi, eta erronka handia dugu herri gisa elkarrekin aurrera egiteko. Lehenaz gain, zailagoa izango da-eta esku artean ditugun proiektuak aurrera ateratzea. Gauza guztien gainetik, ordea, elkar zaintzea eta ataundarron komunitatea indartzen jarraitzea dagokigu datozen hilabeteetan. Izan ere, esaerak dioen bezala, “bakarrik azkarrago joan gaitzke, baina elkarrekin urrunago”.


Ataungo Udalean lanean jarraituko dugu Ataun guztiontzat herri bizigarria izan dadin. Udaleko zerbitzuak indartuz, herrian ditugun zerbitzuei eta auzoen arteko orekari eusteko ahalegina eginez, kalitatezko kultura-ekitaldiak antolatuz, herriko elkarteekin eta eragileekin elkarlanean arituz, ingurumena zainduz, behar diren azpiegiturak eta lanak eginez, eta bertako produktuak erosiz, kontsumituz eta oparituz jarraituko dugu herria egiten.

Urte berri oparoa izan dezazuela! Zaindu zeuen burua eta zaindu ingurukoak!

Ataunen, 2021eko abenduaren 23an.



Informazio gehiago:

komunikazioa@ataun.eus  616758758

 @Ataungo_Udala  Ataungo_Udala